



Pozgarria da ETAk emandako urratsa

22an denok Bilbora

ETAk borroka armatuari amaiera ematea albiste pozgarria da euskal gizarte osoarentzat, guztiontzat. Azkenean, denbora luzez irrikan genuen urratsa iritsi da.

Oso une zoriontsua eta txalotu beharrekoa da, ezinbestean eman beharreko erabakia baitzen; baina ez dugu aiantzi behar benetako bakea eta normalkuntza politikoa eskuratzeko beste urrats batzuk ere eman behar direla, halabeharrez. Izan ere *Gernikako Akordioaren* ildotik eta *Aieteko Adierazpenean* jasotzen diren puntuak bere osotasunean betetzea beharrezkoa da eragile guztion aldetik.

Beraz, ospa dezagun egoera itxaropentsu berri hau iritsi izana, euskal herritar guztioi arnas berria emango baitigu lanean jarraitzeko.

Aldi berean, bihar Bilbon "*Euskal Herriak konponbidea nahi du*" lelopean deitutako manifestazio nazionalean parte hartzeko dei egiten diogu jendarte osoari, inoiz baino beharrezkoagoa delakoan.

Euskal Herriak Konponbidea Nahi Du
Zabaldu Ateak, Giltza Gara
Bilbo (La Casillatik 17:30etan)

201ko urriaren 20an

STEE-EILASeko Nazio Batzorde Iraunkorra